

zakilixut

© Olariagak



Allande Sokarros | LIGI

ATZEKOZ AURRERA

Ligiko Laminen zubia ospetsutik oso hurbilean kokatutako Goux kautxu fabrika ohiak ez zuen pentsatuko bizi berri bat ezagutuko zuenik... garagardoari esker! Alta, hori bera da gertatzen ari, lantegi zabal honen zati batean, joan den maiatza hasieratik, Akerbeltz deitutako garagardoaren bi motak —gorria eta zuria— fabrikatuta baitaude. Akerbeltz, haatik, Ipar Euskal Herriko ia ehun bat taberna eta ostatutan eskaintzen da, azken bi urteetan baina, orain arte, Frantziako Lorena eta Nord eskualdeetan fabrikatua zen. Hala ere, garagardo honen euskarazko izena ez zen publizitate irudi huts batekoa, maizegi gertatzen den bezala, zeren eta Onizegaineko Frantxoa Irola eta Ligi-Atereiko JohaÑe Cazenave gazteek beraien moldatutako errezetekin frabrikatua baitzen.

Hasierako urrats haietan, neke asko pairatu dituzte bi lankideek. Izan ere, Frantxoak erran digunez, «Akerbeltz gorriaren eta zuriaren errezetak, gure gustura, garagardotegi eskola batean ezarri genituen pikoan eta han bertan hasi zen fabrikazioa; alabaina, eskola hau garagardo industrialen men zegoen eta berehalaxe ekin zieten gure errekaratzeko saioei». Gauzak horrela, Frantxoak eta JohaÑek beste fabrika leku bat atzeman behar izan zuten eta hau garagardo ekoizleku handia den Frantziako Nord departamenduan aurkitu bazuten ere, beste arazorik sortu zen. «Ura ezberdina zen, malta eta lupulua ere bai... beraz, Akerbeltzen gustua bera ere aldatu egin zen», azaldu digu Frantxoak.

Taberna bat fabrika bertan

Gaur, haatik, atsekabe hauek atzean dituzte eta oraingoari dagokionez, «ura, hemen bertan lurretik jalgitakoa da eta



CHRISTOPHE DE PRADA SAMARUTI

Ligiko Goux kautxu fabrika ohian ezarri dute garagardoa egiteko planta.

Laminen gerizan hazitako Akerbeltza

Frantxoa Irola eta JohaÑe Cazenave eskuz egindako garagardoa fabrikatzen hasi dira Ligin



CHRISTOPHE DE PRADA SAMARUTI

Akerbeltz garagardo naturala egingo den upelak.

malta, berriz, Nafarroatik ekartzen dugu, Andosilla ingurune-tik». Legamiak, hala ere, Frantziako Lille (Nord) ingurutik ekarraraztera behartuta daude, bertan baita hauen ekoizpen leku handiena eta, lupuluak, aldiz, Eslovenia eta Txekiar Errepublikaren urrunetatik datoz. Hala eta guztiz ere, kutsu bereziko garagardoak egitea lortzen dutela diote Frantxoak eta JohaÑek, «argi egon behar da guk ez dugula merkaturatzen jendeek ustez maite dutena eta

bai, ordea, guri gustukoa zaiguna». Akerbeltzen fabrikazioan etika bati jarraitu nahi diotela argi uzteko ere, «hartxidura edo irakitea, mozkin naturalekin egiten dugu, ez dugu produktu kimikorik erabiltzen», argitu digute.

Nahi duenak, gainerat, ikus dezake nola egiten den Akerbeltz garagardoa, Frantxoa eta JohaÑe prest baitaude bisitariei harrera egiteko eta 250 metro karratuko lan esparru batean banatuak diren makinak nola ibiltzen diren erakustera emateko. Garagardo ekaien nahastea kobrezko bi dupa erraldoietan egiten da eta irakitea, aldiz, 1.000 litroko beste sei upeletan. Hiru aste behar da garagardoa egiten hasten eta dastagai izan arte. Dastatzea oso garrantzitsua delakoan, Frantxoak eta JohaÑek taberna moduko bat eratu dute fabrian bertan.

Haatik, Akerbeltz egitetik oraingoz bizibiderik ez baitezaketere atera, euren lanbideak atxiki dituzte bi lankideek, tabernari Frantxoaren kasuan eta zurgin JohaÑeri dagokionez. Akerbeltzekoekin harremanetan sartu nahi duenak, beraz, Frantxoa topa dezake Onizegaineko Pont de Abense jate-txean —hau ere oso helbide gomendagarria da— edo (00 335) 59.28.54.60 telefonora hots eginda.

CHAPUCETTI
T-SHIRT Co.
SERIGRAFIA TESTILA
Kamisetak, poloak, metxeroak eta abar.
Zigordia, 52 - Tel-Fax: 943 13 05 25 (Tren geltoki ondoan)
e-mail: chapucetti@mugor.euskalnet.net
Mugikorra: 652 77 09 01 **ZARAUTZ**